

2019EKO BAGILAREN 12AN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA

UDALAK EGINDAKO AURREKO OSOKO BILKUREN AKTA ONESTEA

Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko zemendiaren 28ko Araudiaren 36.1. artikuluan ezarritakoa betez, kargua ixteko dagozan zinegotziak udalbatza aretoan batu dira 2019ko bagilaren 112ko arratsaldeko 7:00 etan, udalak 2019ko maiatzaren 9an eta 2019ko maiatzaren 23an egindako osoko bilkuren aktak onesteko asmoz.

Bilkura honetara bertaratu dira AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA alkatea eta korporazinozko idazkaria, Juan Francisco Eiguren Kortazar, bai eta ondorengo zinegotzi honeek be:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzi honeek ez dira udalbatzarrera bertaratu: AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV), JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV), MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV) eta ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)

Horrenbestez, behin udalaren osoko bilkura osatzeko behar beste kide dagoala egiaztatu ostean, Amets Jauregizar alkate andreak bilkura zabalik dagoala adierazo dau; halan da ze, eguneko aztergaien zerrendaren barruko ondoko gai biez aztertzeari ekin jako.

1.- 2019KO MAIATZAREN 9AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Udal idazkariak, gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu eban udalak 2019ko maiatzaren 9an egindako ohiko udal bilkuraren akta. Akta hori irakurri ostean, alkateak galdetu dau horretaz ea inork ezer esateko daukan. Inork be ez dau ezer esan, eta zinegotzietatik akta hori aho batez emon dabe ontzat.

2.- 2019KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Udal idazkariak, gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu eban udalak 2019ko maiatzaren 23an egindako aparteko udal bilkuraren akta. Akta hori irakurri ostean, alkateak galdetu dau horretaz ea inork ezer esateko daukan. Inork be ez dau ezer esan, eta zinegotziek akta hori aho batez emon dabe ontzat.

Horrenbestez, eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak berbea hartu eta legegintzaldi honetan udal zereginetan parte hartzeagaitik zinegotzi guztiei eskerrak emon deutsez.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 07:15ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria